

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak 120.000 euro eman dizkio Nazio Batuen Agentziari Ekialde Hurbilean dauden palestinar errefuxiatuentzat (UNRWA)

Zenbatekoa Sirian aurkitzen diren Palestinako errefuxiatuen elikadura-premiak eta bestelako oinarrizkoak betetzeko erabiliko da

Osteguna, 2018.eko irailak 27

Eskubide Sozialetako Departamentuak larrialdi-egoeretan espezializatutako jarduera humanitarioko 120.000 euro eman dizkio Nazio Batuen Agentziari Ekialde Hurbilean aurkitzen diren errefuxiatu palestinarrentzat (UNRWA), eta Sirian dagoen Palestinako biztanleria errefuxiatuaren oinarrizko premiak artatzeko erabiliko dira. 120.000 euroko laguntzarekin elikadura-premien



Ezkerretik eskuinera: Gema Mañu, Izaskun Lara, Laparra lehendakariordea, Raquel Martí eta Andrés Carbonero.

eta etxebizitza eskuratzea bezalako bestelako oinarrizko premien bi herenak estaltzea espero da 2.000 pertsona ingururentzat eta bi hilabeteko denboraldirako.

Nafarroako Gobernuak egindako ekarpena gaur ezagutzera eman dute Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak, Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako zuzendari nagusi Gema Mañuk eta Sarrerren Bermerako eta Garapen Lankidetzarako zerbitzuko zuzendari Andrés Carbonerok. Haiekin batera egon dira UNRWako Espainiako Batzordearen zuzendari exekutiboa, Raquel Martí, eta Nafarroako ordezkaria, Izaskun Lara.

Nafarroako Gobernuaren ekarpenari esker, gutxi gorabehera 56 euro emango zaizkie 1.929 pertsonari (horietatik %52 emakumeak izango dira eta %32 adin txikikoak); halaber, laguntza horrekin, banaketako eta kontroleko langileen oinarrizko soldata estaltzea espero da, banaketen urteko esparruan. Era berean, laguntza jasotzen duen pertsonaren familiak ere zeharka etekina lortuko du.

Laguntza UNRWak Sirian Larrialdiari Erantzuteko Planaren esparruan egingo dituen ekintzetarako izango da; hain zuzen ere, horren helburua da mugitutako komunitatearen erresilientzia zaintzea, laguntza dirutan emanaz. Planak Palestinako 438.000 pertsona errefuxiatu hartzen ditu. Biztanleria hori ahulezia-egoera berezian aurkitzen da, besterik gabe

errefuxiatuen estatusa izateagatik, horrek honako hauek bezalako eremu hain garrantzitsuetan sortzen dituen gabeziekin: elikadura-segurtasuna, hezkuntza edo lehen mailako mediku-arreta, besteak beste. Horrez gain, gerra zibilak osasuna eta higiena bezalako eremu hain funtsezkoetan sortzen dizkieten ondorioak jasaten dituzte, haien biziraupena arriskuan jarriaz. Ondorioz, Planaren bitartez, Palestinako errefuxiatuei efektiborako bidea erraztu nahi zaie, oinarrizko puntua baita ahulezia handiko egoeran oinarrizko premiak estaltzeko.

1.920.000 euro 4 urtetan

Azken lau urtetan, Nafarroako Gobernuak guztira 1.920.000 euro jarri ditu Jarduera Humanitarioko esku-hartze ezberdinak bultzatzeko. Zenbateko oso horretatik 768.000 euro eman dizkio RASD Adiskidantzarako Nafar Elkarteari (ANARASD), 360.000 euro UNRWArri, 240.000 Gosearen aurkako Ekintza Fundazioari, 220.000 euro Espainia ACNURekin Elkarteari, 220.000 euro UNICEF Fundazioa-Nafarroako Batzordeari eta 120.000 euro Nafarroako Gurutze Gorriari.

Nabarmendu behar da laguntza humanitarioak garapen-herrialdeetako egoera ahuleneko biztanleriaren aldeko esku-hartzeak finantzatzeko edo hondamendi naturalek edo giza gatazkek eragindako muga-egoerak artatzeko direla, kaltetutako pertsonen eta komunitateen oinarrizko eta berehalako premiak artatze aldera.